

## ZUZENDARITZA KONTSEILUAREN BILERAREN AKTA / ACTA DE REUNIÓN DEL CONSEJO DE DIRECCIÓN

**Data:** 2018ko apirilaren 13a  
**Ordua:** 16:00  
**Tokia:** JSKJaren egoitza.

**Fecha:** 13 de abril de 2018  
**Hora:** 16:00  
**Lugar:** Sede de la CJS

### AZTERGAIAK

1. Zuzendariaren agurra
2. Aurreko aktaren onarpena
3. Mintegi Iraunkorraren eta lanbide arteko mintegiaren programazioa
4. Justizia Soziala-Lab proiektuaren inguruko informazioa.
5. Justizia Soziala-Lab proiektuaren inguruko aurrekontua 2018
6. Etorkizuna Eraikiz proiektua
7. Norberak lekarkeena.

### ORDEN DEL DÍA

1. Saludo de la Directora
2. Aprobación del acta anterior
3. Programación del Seminario Permanente y del Seminario Interprofesional
4. Información acerca del proyecto Justicia Sociala-Lab.
5. Presupuesto del proyecto Justicia Sociala-Lab 2018
6. Proyecto Etorkizuna Eraikiz
7. Ruegos y preguntas

### EZTABAIDAK ETA ERABAKIAK:

**1. Zuzendariaren agurra.** Bileraren hasieran, Klinikako Zuzendariak ongi-etorria eman die batzordekideei, eta haien prestasuna eta laguntza eskertu du, halaber, JSKJaren ekitaldietan duten parte hartzeagatik. Era berean, Klinika Juridikoaren kudeaketaren alorrean urriaz geroztik egindako urratsak eta garatutako ekimenei buruzko informazioa eskaini da. Horrez gain, Klinikaren egoera ekonomikoaren berri ere ematen da (eskuratutako diru-laguntzak).

**2. Aurreko aktaren onarpena.** Baiespenez onartzen da aurreko bileraren akta.

**3. Mintegi Iraunkorraren eta lanbide arteko mintegiaren programazioa.** 2017/18 ikasturteko programazioaren berri ematen da: zein mintegi eskaini diren eta zein diren ikasturte amaierara bitartean hitzartutakoak. Lanbide arteko mintegiaren berri ere ematen da. Gogorarazi da helbide honetan dagoela jasota programazio osoa:  
<https://www.ehu.eus/eu/web/zuzenbide/gzkj-mintegi-iraunkorra>

### DELIBERACIONES Y ACUERDOS:

**1. Saludo de la Directora.** La reunión se inicia con saludo de bienvenida de la Directora, y el agradecimiento a las personas que forman parte del Consejo de Dirección, por su disponibilidad y participación en las actividades de la CJS. Igualmente, se informa a las personas del Consejo acerca de las gestiones realizadas desde octubre y de algunas actividades e iniciativas desarrolladas en dicho periodo. Asimismo, se informa de la situación económica (ayudas concedidas) a la fecha de la reunión de la junta.

**2. Aprobación del acta anterior.** Se aprueba por asentimiento.

**3. Programación del Seminario Permanente y del Seminario Interprofesional.** Se expone el programa desarrollado desde el inicio del curso 2017/18 hasta la fecha. Asimismo, se presentan las actividades previstas hasta finales de junio. Se ofrece un avance del Seminario Interprofesional previsto para el mes de mayo. La programación completa se encuentra disponible en la siguiente dirección web:  
<https://www.ehu.eus/es/web/zuzenbide/gzkj-mintegi-iraunkorra>



**4. Justizia Soziala-Lab proiektuaren inguruko informazioa.** Joseba Ezeizak, Justizia Soziala-Lab proiektuaren testuinguruan abiatu diren Hezkuntza Berrikuntzako Proiektuen koordinatzaileak, iraila-martxoa bitartean egindako jardueren berri eman du. Era berean, Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetzarekin adostutako hainbat konturen berri eman du: nola kudeatuko den proiektuen erregistroa eta jarraipena; nola bideratuko diren ikasleentzako zein irakasleentzako aitortzak; nola zuritu beharko diren ikasleek izan ditzaketen gastuak, eta abar. Leire Imaz kontseilukideak, bere aldetik, Leioan 2018ko irailetik aurrera garatuko den prestakuntza-proiektuaren xehetasunak eman ditu. Azkenik, 2018ko urtarrileko jarraipen-txostenean jasotako beste xehetasun batzuen berri eman da (**Ikus 1. eranskina**)

**5. Justizia Soziala-Lab proiektuaren inguruko aurrekontua 2018.** Proiektuaren azalpenekin batera, aurrekontuaren aurkezpena egin da. Baiespenez onartu da. Proiektuaren garapen-mailaren eta une horretan Errektoreordetzan eskuragarri dauden diru-funtsen arabera, aurrekontua zabaltzeko aukera egon daitekeela aurreratu da. Behin-behineko aurrekontua akta honi atxikitako **2. eranskinean** dago jaso.

**6. Etorkizuna Eraikiz proiektua.** Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako deialdiaren berri ematen da. Era berean, jakinarazten da Etorkizuna Eraikiz proiektuak babesa emango diola bi ikaslek Klinikaren egingo duten lanari. Ikasleek beka-saria eskuratuko dute Klinikaren aldetik, lan horren truke.

Horrenbestez, beste gairik ezean, bilerari 18:00etan eman zitzaion amaiera

**4. Información acerca del proyecto Justizia Soziala-Lab.** Joseba Ezeiza, coordinador de los Proyectos de Innovación Docente que se están desarrollando en el marco del proyecto Justizia Soziala-Lab, da cuenta de las actividades realizadas desde inicios del curso 2017/18. Igualmente, informa acerca de diversas cuestiones acordadas con el Vicerrectorado de Innovación, Compromiso Social y Acción Cultural: cómo se gestionará el registro y seguimiento del proyecto; cómo se procederá para liquidar gasto del alumnado; qué criterios y procedimientos se seguirán para reconocer la participación de profesorado y alumnado, etc. La profesora Leire Imaz toma la palabra para exponer el proyecto a desarrollar a partir de septiembre de 2018 en Leioa. Finalmente, se informó de diversas cuestiones menores recogidas en el informe de seguimiento de enero de 2018 (**ver Anexo I**)

**5. Presupuesto del proyecto Justizia Soziala-Lab 2018.** A continuación se expone el presupuesto provisional del proyecto. Se aprueba por asentimiento. Se informa de la posibilidad de ampliar la dotación económica en junio/julio, en función del propio desarrollo del proyecto y de la disponibilidad presupuestaria del vicerrectorado. Se adjunta el presupuesto en el **Anexo 2**.

**6. Proyecto Etorkizuna Eraikiz.** Se informa de los objetivos y características del proyecto Etorkizuna Eraikiz promovido por la Diputación Foral de Gipuzkoa. Igualmente se da cuenta del resultado de la convocatoria lanzada por dicho proyecto. La CJJS recibirá una ayuda económica para dar soporte al trabajo a realizar por dos alumnas, quienes recibirán una beca por parte de la Clínica Jurídica.

Así pues, sin más asuntos a tratar, la reunión se dio por finalizada a las 18:00 horas.

Izpta.- Fdo Joseba Ezeiza Ramos

Justizia Sozialaren Aldeko Klinika Juridikoaren Idazkaria

Secretario de la Clínica Jurídica por la Justicia Social

